


# KAYAK SURF ARAUDIA

INDARREAN NOIZTIK 2022ko otsailaren 2tik



AURKIBIDEA

1.Art.- Helburua.....	2
2. Art.- Partaidetza.....	2
3. Art.- Kategoriak.....	2
4. Art.- Ontziak eta osagarriak. ....	2-3
5. Art.- Ofizialak.....	3-4
6. Art.- Ofizialen obligazioak.....	4-7
7.Art.-Araudi nagusia.....	7
8. Art.- Txapelketen Programa.....	8
9. Art.- Inskripzioen aldaketak eta ezabaketa.....	8
10.Art.- Irteera Zenbakiak, likrak.....	8
11. Art.- Instrukzioak talde-buruentzat.....	8-9
12. Art.- Segurtasun neurriak.....	9
13.Art.-Txapelketa tokiaren baldintzak.....	9
14. Art.- Seinaleak.....	9-10
15. Art.- Serie eta txanden antolaketa.....	10-11
16. Art. Puntuazioak.....	11-16
17. Art.- Interferentziak.....	16-23
18. Art.- Penalizazioak.....	24
19. Art.- Kanporaketa.....	24
20. Art.- Erreklamazioak.....	24-25
21. Art.- Protestak.....	25
22. Art.- Txapelketa baten etendura.....	25
23. Art.- Dagozkien txandetan aurkeztu gabeko partaideak.....	25
24. Art.- Txapelketa bakoitzeko puntuazioa.....	25-26
25. Art.- Kluben araberako sailkapena.....	26
26. Art.- Berdinketak.....	26-27
Amaiera Xedapena.....	27

## **1. Art.- Helburua.**

Kayak-surfeko txapelketaren helburua da piragua batekin irristatzea, itsasoko olatu baten ibilbidean zehar irudi ezberdinak garatzu.

## **2. Art.- Partaidetza.**

Proba bat garatu ahal izateko, derrigorrezkoa da bi klub ezberdinako 3 ontzi gutxienez inskribatzea, parte hartu ahal izateko. Salbuespen, emakumearen sustapena, juniorrena edo egoki deritzena.

Palistak indarrean dagoen lizentziaren jabe izan beharko dira, Espainiako Piraguismo Federazioak edo dagokion Autonomia Federazioak ontzat ematean eskuratutako lizentzia izanik.

## **3. Art.- Kategoriak.**

### Banakakoak

- Gizonekoak IC/HP Senior/ Open
- Emakumezkoak IC/HP Senior/ Open
- Gizonekoak IC/HP Junior
- Emakumezkoak IC/HP Junior
- Gizonekoak IC/HP Kadetea
- Emakumezkoak IC/HP Kadetea
- Gizonekoak IC/HP Master +40
- Emakumezkoak IC/HP Master +40
- Gizonekoak IC/ HP Grand Master +50
- Emakumezkoak IC/ HP Grand Master +50
- Gizonekoak IC/ HP Grand Grand Master +60
- Emakumezkoak IC/ HP Grand Grand Master +60

## **4. Art.- Ontziak eta osagarriak.**

### 4.1 Kayak ontzia

- Kayak ontziak bi orriko palekin bultzatzeko ontzi estaliak izanik, lehiakideak barruan eserita joaten izaten dira.
- Ez dago murrizketarik piragua mota ezberdinetarako, betiere eskatutako segurtasun neurriak betetzen dituztenean.

## Kayak Surfeko Araudia

- Kayak ontzi berdina erabili beharko du palistak txapelketa osoan.
- Lehiakide guztiekin jakatik, kaskoa eta estalkia erabili beharko dituzte proba guztietan.

Ez dira onartuko wave-ski eredu guztiak, surf taulak edo prototipoak.

### 5. Art.- Ofizialak.

Bere ezaugarriak eta garrantzia kontuan hartuta, kayak surf txapelketa bat zuzentzea dagokie ondorengo ofizialei:

#### Txapelketa Batzordea

Kayak surfeko txapelketa guztiekin txapelketa batzorde batekin kontatu beharko dute, osatuta ondorengo kideekin.

Erakundeko pertsona bat

Epaile Burua

Palisten edo federazioko ordezkari bat

Kayak surfeko arbitroak izan beharko dira.

Txapelketa Batzordeak araudien konplimendu ezarekin lotutako protestak jasoko ditu eta desadostasunen kasuetan amaiera erabakia hartzea dagokio.

Txapelketa Batzordeko erabakiak ezarritako araudiarekin bat etorri beharko dira. Txapelketa Batzordeak lehiakide bat txapelketa osorako kanporatu ahal izango du.

Txapelketak ikuskapenaren eraginpean ospatu beharko dira, ondorengo ofizialen eskutik:

Txapelketako zuzendaria (erakundea)

Epaile Burua =Epaile Arbitroa (1)

3 puntuazio epaile

4 eskribau

Baturen epaile-burua (Emaitzak eta ordenagailua)

Ordezko Epailea (puntuaziokoa)

Denboren Epailea. (1)

Txapelketa Zuzendaria

Antolatzalea

#### 5.2. *Txapelketa Batzordea:*

## Kayak Surfeko Araudia

Kayak Surfeko txapelketa guztiekin 3 kiderekin osatutako Txapelketa Batzorde batekin kontatu beharko dute. Gutxienez 2 kide, Epaile tituluaren eta indarrean dagoen karnetaren jabe izan beharko dira.

Txapelketa Batzordeko kideen izendapena Euskadiko Piraguismo Federazioari dagokio.

Txapelketa Batzordeak araudien konplimendu ezarekin lotutako protestak jasoko ditu eta desadostasunaren kasuetan amaiera erabakia hartuko du.

Txapelketa Batzordearen erabakiak F.V.P.-ko araudian xedatutako erabakiek bat etorri beharko dira. Txapelketa Batzordeak lehiakide bat txapelketa osorako kanporatu ahal izango du.

Boto berdinketaren kasuan, Txapelketa Batzordeko Presidentea izango da erabakiko duena..

### **6. Art.- Ofizialen obligazioak.**

Besteak beste, epaile taldearen zeregin da txapelketa batzordearekin biltzea eta aldez aurretik erabakitzea:

Lehiazko epe bat eta atsedenaldiak, txanda eta fase guztietarako.

Denbora ezartzeko orduan, olatuen kopurua eta kalitatea hartu beharko dira kontuan; 19 minutuko epea izango da ohikoa.

Epaileek txapelketaren denbora aldatu ahal izango dute, hala badagokio, partaideek gozatzen dituzten olatuen kalitatearen arabera.

Itsas egoeraren baldintzak arriskutsuak eta eskasak izaten direnean, txapelketa batzordeak erabaki ahal izango du probarekin jarraitzea ala ez, partaideen eta epaile taldearen iritziak kontuan hartuta.

**Txapelketako Zuzendariak**, araudiaren arabera zuzenduko du. Ondorengo ardurak dagozkio:

- Prestaketa lokala eta txapelketa osoaren garapena
- Txapelketako talde teknikoaren instalazioa eta funtzionamendua

### **Epaile Buruak/ Epaile Arbitroa:**

#### **Eskumenak:**

Txapelketa behar bezala eta FVP-ko hala nola txapelketako araudiak kontuan hartuta garatuko dela bermatu behar du. Txapelketako araudia interpretatuko du, lehiakide bat kanporatu ahal izanik. Une orotan egiaztatu behar du puntuazio epaileek irizpide akatsik ez egitea, denbora behar bezala neurtzea eta abisu sistema dagokion moduan erabiltzen dela bermatzea.

Epailea da txanda bakoitzeko partaideen irteera agintzen duena eta gainerako epaileak koordinatzen dituena.

## Kayak Surfeko Araudia

Amaiera erabakia hartzea dagokio probaren formatuarekin lotutako gai ororen inguruan (zein maniobra puntuatzen diren, nola, penalizazioak, etab.)

Bere funtzioa da erabakitzera zein partaide lehenetsiko den olatuan; zalantzaren kasuan, partaide batek beste bati interferentzia egin dion, epaileekin kontsultatzea epaileen txanda amaitzean, epaileek interferentzia bat markatzean, berdinketa egonez gero, bere bota erabakigarria izango da. Ezinbestekoa da prismatikoak erabiltzea.

Epaile honek derrigorrez “interferentziak eta lehentasunak” ebazteko arau guztiak ezagutu beharko ditu.

- a) Txapelketaren lehenengo egunean epaile panelaren bilera bat antolatzea. Bilera horren helburuak izango dira instrukzioa, prozeduren eta metodoen estandarizazioa eta proba ezberdinak ezartzeara, zeinetan epaileen gaitasunak egiaztatuak eta ebaluatuak izango diren. Epaile Buruak halaber bilera bat antolatuko du epaile guztiekin txapelketako egun bakoitzean, lehenengo txanda uretara sartu aurretik. Bilera honen helburua izango da epaileak edozein aldaketaren inguruan eguneratzea eta aurreko egunean gertatutako akats batzuen iruzkinak egitea.
- b) Epaileen trebetasun maila dagokionaren azpitik dagoenean, Txapelketako Epaile Buruaren eta Zuzendariaren ustean, epaile paneletik aldenduak izango dira eta ospakizun hori epatzeko baimena kenduko zaie.
- c) Epaile Buruak gainerako epaileak txandaka antolatuko ditu, segidako hiru edo x txanda soilik epaitu ahal izan izateko moduan.
- d) Epaile Buruak sarritan egingo ditu epaileen puntuazio orrien zenbaketak eta maila onargarria erakusten ez duten haien identifikatuko ditu. Txapelketa Zuzendaria informatuko du eta epailea kanporatzea edo ez erabaki beharko du.
- e) Txandak garatzen diren bitartean, Epaile Buruak puntuazio orriak zenbatuko ditu, txanda bat eta hurrengoaren artean maila uniforme bat mantentzen dela hala nola epaileek puntuazio eskala erabilgarri osoaren erabilera egiten dutela bermatzeko. Interferentzia arauak zuzentasunez eta zorroztasunez aplikatuko dira. Epaile bati jakinarazi beharko dio bere neurriak edo prozedurak ez direla bateragarriak paneleko gainerakoekin. Neurri hori Epaile Buruak hartu beharko du txanda bat amaitu eta hurrengoa hasi aurretik.
- f) Epaile Burua arduratuko da txanda bakoitzean olatuen kontua mantentzeaz eta epaileek olatuak hurrenkera batekin identifikatu ahal dituztela bermatzeaz.
- g) Epaile Burua arduratuko da Zaindariak (olatuan dauden palistak eta likraren koloreak identifikatzeko pertsona laguntzailea) egin ditzakeen olatuen zenbaketak ikuskatzeaz.
- h) Epaile Buruak galduetako olatuak zenbatuko ditu, “M” bezala markatuari dagokion puntuazio zehatzta ezartzeko.
- i) Agindu egokiak eman behar ditu, interferitua izan den palistari olatu estra bat erabilgarri duela jakinarazteko.

## Puntuazio Epaileak.

**Eskumenak:**

Txanda bakoitzean gutxienez lau puntuazio epaile ezarriko dira.

- a) Epaileek agerraldia egingo dute Epaile Buruaren aurrean, eguneko 1. Txanda hasi baino gutxienez 30 minuto lehenago. Horrela olatuen eta surfing motaren ikuspegi errealista bat izateko behar adina denborarekin kontatuko dute.
- b) Hurrengo txandarekin hasi aurretik, epaileen orriko dagokio sekzioan idatziko dira epailearen izena, txandaren data eta epaileari panelean esleitutako zenbakia.
- c) Epaileen orriak berehala entregatu beharko dira txandaren amaieran. Epaileek ez dituzte doitu behar orriak, ezta euren puntuazioak aldatu ere. Puntuazio bat garbi adierazten ez bada, komenigarria da zuzentzea, laukia ezabatzea eta hurrengoa erabiltzea. Aldaketa guztiak Epaile Buruak izenpetu beharko ditu.
- d) Epaile bakoitzak ehunean ehuneko saiakera egingo du. Oinarrizkoa da kontzentrazio maximoa erakustea lehentasun pertsonalak ezabatu eta erabateko eraginkortasuna lortu ahal izateko. Epaileek lehiakide bakoitzaren olatua puntuatu beharko dute eta interferentziak markatzeaz arduratu beharko dira. Epaile guztiak txanda bakoitzeko lehiakide guztiak puntuatuko dituzte.
- e) Txapelketa amaitu ostean, epaileak eskuragarri mantenduko dira protestak sortzeko aukerarik ez dagoen arte.
- f) Epaileak nabarmenki bereizita ezarri behar dira eta Epaile Buruaren ardura da epaileek puntuazioen edota interferentzia deien inguruau ez eztabaidatzea.
- g) Epaileek ez dituzte euren puntuazioak aldatu behar, ezta interferentziaren deiak ere, ordenagailuaren terminalean edota kalifikazioaren eskuzko orriean. Akats bat gertatu den txandan, epaileak eskatu beharko dio Epaile Buruari bere izenean zuzenketa bat egiteko.
- h) Epaile batek olatu bat edo honen atal bat galtzen duenean, “M” bat idatzi beharko du eskuzko orrian edo ordenagailuan dagokion laukian.

Hauek puntuatuko dituzte lehiakideek puntuazio tauletan onartutako eta deskribatutako irudietan oinarrituta egiten dituzten mugimenduak.

Garrantzitsua da aurretiaz puntuazio epaileen artean puntuazio hori emateko baremo bat adostea.

**Baturen Epailearen zereginak:**

- a) Epaile Buruak txanda amaitzean puntuazio orriak banatzen dituenean, berehala egiaztapenari ekingo diote ikusteko:
  - Epaileen orri guztiak entregatuak izan diren.
  - Orri bakoitzean olatuen kopuru zehatza idatzita dagoen.
  - Interferentziaren deiak idatzita al dauden.

## Kayak Surfeko Araudia

- b) Txanda batean epaile gehienek interferentziaren dei bat idazten dutenean, baturen epaileak Zuzendari Teknikoari ekintza horren berri emango dio.
- c) Ez da jakinaraziko txanda bateko emaitza batura egin ostean, Epaile Buruak ontzat ematen duen arte.

Txanda batean epaile batek olatu bat galdu duenean, dagokion laukian “M” bat ezarrita, baturen epaileak gainerako epaileen batez besteko aritmetikoa ebatziko du olatu horretarako eta dagokion laukian emaitza ezarriko du. Operazio hau Epaile Buruari dagokio ikuskatzea. Partaideren bat puntuatua izaten ez denean, epaile batek jarraitu ez duelako, epaileak bere puntuazio orrian “M” hizkia markatu beharko du eta adieraziko da olatu horren inguruan beste epaileek emandako puntuazioek, partaidearen amaiera emaitzan eragina izan dezaketela:

Epaile Buruak puntuazioa kalkulatu beharko du, gainerako epaileen puntuazioarekin konparatuz, gainerako epaileek olatu horretarako emandako puntuazioen batez bestekoa kalkulatzu.

- d) Baturen epaileak palista bakoitzaren 2 olatu onenak batuko ditu, epaileen orri bakoitzean. Puntuaziorik onena eskuratzen duen palista 1. postuan ezarriko da eta horrela hurrenez hurren. Epaileen orri guztiak batu direnean, emaitzak amaiera emaitzari dagokion laburpen orrian idatziko dira. Bertan adieraziko dira palista bakoitzak lortutako postuak eta ezabatu egingo dira palistari puntuazio onena eta okerrena eman dioten epaileak.

**Eskribauak.** Epaile bakoitzeko eskribau bat ezarriko da.

Eskribauak erabiltzen dira puntuazio epaileen zeregin errazteko. Epaileek, partaideak lortutako puntuazioak eta interferentziak ‘kantatzen’ dituzte eta dagokion eskribauak puntuazio orriean horren berri ematen du.

Eskribauen funtzioa (puntuazio epaile bakoitzeko bat) berezia da eta esklusiboki epaileak adierazten diona idatzi beharko du. Inolako kasutan ez dagokio bere iritzia ematea edota bere kabuz idatziz adieraztea ikusten dituen mugimenduak.

Partaide kopurua kontuan hartuta, puntuaziorako bigarren talde bat ezarri beharko litzateke, txandatu ahal izateko.

## 7. Art.- Araudi nagusia.

Olatuaren altuera minimo batekin kontatu behar da surf txapelketa bezala ontzat emateko, betiere epaileek txandaren garapena epaitzeko ahalmena izaten dutenean.

Partaideak gai izan behar dira eskimoteatzeko eta erakundeak alderdi hau egiaztu ahal izango du, edozein unetan.

Segurtasunerako erantzukizun orokorra probako antolatzaileen konpetenzia izan arren, partaideak prest egon beharko dira une orotan sorosle jarduerak garatzeko.

Lehiakidea prest ezarri beharko da irteera orduan.

Erabat beharrezkoa denean izan ezik, palistak ezin jardun ahal izango dira epaile bezala txapelketa ofizialean, halaber dagokion proban lehiatzen ari denean. Baino parte hartu

## Kayak Surfeko Araudia

ahal izango dute probaren bestelako antolaketa esparruetan, boluntarioak behar izaten direnean.

Lehiakideek lagunza eskuratu ahal izango dute euren piraguak husteko, txandak aurrera egiten duen bitartean.

Kanporatua izaten diren lehiakideak ezin izango dira berriro itzuli txapelketara.

### **8. Art.- Txapelketen Programa.**

Gutxienez txapelketa hasi baino 24 ordu lehenago, Federazio edo Klub partaide bakoitzari amaiera zerrenda bat entregatu beharko zaio, mangen ordenarekin, dagozkien Federazioekin edo Klubekin batera partaideen izenak dakartzana.

Antolatzaireek errespetatu egin beharko dituzte gonbidapenetan iragarritako proben hurrenkera eta txapelketetako programetan iragarritako txanden arteko tarteak.

Ezin izango dira aldaketak egin, Taldeko Epaileen gehiengoak baimena ematen ez badu.

### **9. Art.- Inskripzioen aldaketak eta ezabaketa.**

Aldaketan iragarpena Talde Buruen bileran zehar egin beharko da edo bestela idatziz, eta gutxienez txapelketa eguneko lehenengo proba baino ordu bete edo bi ordu lehenago.

Inskripzio baten ezabaketa behin-betikoa izaten da eta debekatuta dago lehiakide edo talde bat berriro inskribatzea.

Inskripzioan egindako edonolako aldaketa Epaile Arbitroari idatziz jakinarazi beharko zaio.

### **10. Art.- Irteera zenbakiak, likrak.**

Likrak antolatzaireek banatu beharko dituzte; horien kolore ikusgarriak izan beharko dira, euren artean nahasteak ez sortzeko, adibidez: gorria, zuria eta beltza.

Erakundeak hiru likra sorta izan behar ditu erabilgarri, gutxienez bost kolore ezberdinekin kontatuz. Hurrenkera ondorengoa izanik: 1 Gorria, 2 Zuria, 3 Horia, 4 Beltza, 5 Urdina.

Modu ikusgarrian ezarri beharko dira lehiakideen gorputzetan.

Lehiakide bakoitza bere likraz arduratuko da.

- a) Palistak behartuta daude likra jaztera eta kentzera eskuratu duten toki berean eta joan-etorriko ibilbidea hau jantzita egitera. Arau hau betetzen ez bada penalizatua izango da, interferentzia edo isun modura.
- b) Palistak behartuta daude txapelketako likra eramatera Txapelketa Zuzendariak beharrezkotzat jotzen duen une orotan. (adibidez: sari banaketa, elkarrizketak, aurkezpenak, etab.)

### **11. Art.- Instrukzioak talde-buruuentzat.**

## Kayak Surfeko Araudia

Talde Buru bakoitzak eskuragarri izan beharko ditu, gutxienez txapelketa hasi baino bi ordu lehenago, idatzizko instrukzioak ondorengo atalen inguruan:

- Zerrenda txanden ordenarekin.
- Ordutegi zehaztua.
- Hasiera ordua.
- Txanden arteko batez besteko denbora.
- Epaile Arbitroak irteera emateko erabilitako seinalea eta epaileek ibilbidea husteko erabilitako dutena (txilibitua).
- Txapelketa Batzordeari dagokion ezarpen tokia.
- Antidopin Kontrolerako eremua (eskatzen denean).

Bilera bat ospatu behar da Taldeko Buruekin (klubak ordezkatuko dituztenak) ordu egoki batean txapelketa abian jarri aurretik. Ondorengo atalak jorratuko dira:

- Instrukzio osagarriak lehiakideentzat.
- Inskripzioen aldaketak eta/edo ezabaketak.

## 12. Art.- Segurtasun neurriak.

Ontzi guztiak urpera ezinak izan beharko dira.

Lehiakide bakoitzak bainera estalki bat, segurtasun kaskoa eta CE-ko araudiaren arabera homologatutako sorosle jakarera eramango ditu.

Segurtasun arauak betetzen ez badira, Epaile Arbitroak lehiakide bat irtetea debekatu ahal izango dio.

Edozein kasutan, lehiakideak euren ardurapean lehiatuko dira; FVP edo antolatzaileak ez dira arduratuko txapelketan gertatu ahal diren istripuez edo kalte ezberdinez.

## 13. Art.- Txapelketa tokiaren baldintzak.

Txapelketa eremuan derrigorrez jarri behar dira erabilgarri ondorengo elementuak.

- a) Epaileen palko bat edo antzeko eraikin egokia, epaile orori txapelketa eremu osoaren ikuspegia panoramikoa emango dion behar adinako altuerarekin. Palkoaren edukiera behar adinakoa izango da epaileak eta bere laguntzaileak barne hartzeko. Instalazio egokiak erabiliko dira, esaterako karabanak edo karpak, baturen epaileentzat eta Txapelketa Zuzendariarentzat, epaileen palkoaren ingurunean, eremu guztia ixtea zainduz. Eremu honetako sarbidea soilik txapelketako funtzionarioentzat eta talde buruentzat baimenduko da. Megafonia ekipoa epaileen palkotik hurbil ezarri beharko da informazio guztia berehala helarazi ahal izateko; txanden hasiera eta amaiera, interferentziak, etab.
- b) Iragarki-taula bat ezarriko da partaideengana eta erakundeko kideengana abisuak helarazteko, hala nola txanden eta emaitzen berri emateko.

**14. Art.- Seinaleak.**

Possible izaten denean, txapelketaren egoera (txanda, etab.) adieraziko da ikusmen eta/edo entzumen baliabideak direla medio, bai ikusleriarentzat eta bai jardunean ari diren partaideentzat hala nola beste txandetako palistentzat. Onena izango litzateke biak erabiltzea.

Ikusmen seinaleak: banderekin, kartulinekin edo beste sistema batekin.

- Txanda ez da abian jarri, ez dago banderarik altxatuta.
- Txanda abia jarri da eta epaileak puntuatzen hasten dira (Berdea)
- 5 minutu falta dira. Hurrengo txandako lehiakideak uretan sartu beharko lirateke, beti txapelketa eremutik kanpo mantenduz, olaturik hartu gabe eta ekiteko prest. (Horia).
- Txandaren amaiera (Gorria edo banderarik gabe).
- Larrialdia. Sarritan lehiakide batek larrialdi egoerak jasaten ditu. Lehiakideek lagundu ezin diotenean eremua utzi beharko dute eta sorospen taldeei abisua bidali. Gainerako epea edo txanda berriro abian jarriko da antolatzaillek egokitzat jotzen duten unean eta moduan (Beltza).

Entzumen seinaleak: bozina, txilibitua, megafonia, etab. direla medio.

- Txanda abian jartzen da eta epaileak puntuatzen hasten dira (Segundo bat baino gehiagoko txistu bat)
- Bost minutu falta dira (bi txistu)
- Txandaren amaiera (Hiru txistu). Amaiera soinuaren lehenengo kolpeak adierazten du txandaren amaiera heldu dela. Epaile Buruak adieraziko du txanda abian jartzeko unea.

Txapelketa eremuaren seinaleztapena.

Txapelketa eremua, irudiak garatzeko bidea emango duen esparrua izanik, mugatu egin beharko da partaideek arazorik gabe bereizteko markaren bat (bi bandera edo hesola) ezartzea zainduz. Eremua hondartzarekiko modu perpendikularrean markatuko dute.

**15. Art.- Serieen eta txanden antolaketa.**

Txandak.

- a) Txapelketak kanporaketa txandetan ospatuko dira, barne hartuz trialak (beharrezkoak izango baira), zortzirenak, laurenak, finalaurrekoak eta finala.
- b) Txandak gehienez lau palistekin osatuko dira, zein euren likren koloreagatik bereiziko diren, hurrengo txandarako puntuazio onena lortzen duten biak sailkatuz.
- c) Gutxienez bi timer erabili behar dira denborak kontrolatzeko.

## Kayak Surfeko Araudia

- d) Txanda bat amaitu eta hurrengoa hasi bitartean, gutxienez 60 segundoko epe bat iragan beharko da. Esataria arduratuko da palistari jakinarazteaz 7 eta 8 olatu hartu dituela.

Ez da epeareen luzapenik onartuko jadanik abian jarritako txanda baterako. Arrazoiren batengatik txanda bat eten beharko balitz, hau etendako unetik abiatuta jarriko da berriro abian eta hasieran ezarritako denbora-epeareen jarraipenari helduko zaio. Arau honekiko salbuespna gertatuko da Epaile Buruaren ustean baldintzak erabat aldatu direnean; orduan txanda bere osotasunean errepikatuko da.

- e) Epaileen puntuazio orriak lehiakideentzat eskuragarri jarriko dira, aztertuak izateko, betiere bere talde buruaren edo entrenatzailaren aurrean izatea zainduz.
- f) Txandak abian jarriko dira, osatu ez izan arren. Palistak derrigorrez bere likra jaso beharko du, gutxienez bere txanda abian jarri baino 5 minutu lehenago. Txanda batean bi palista soilik izango balira partaide, trialetan, hauetan automatikoki hurrengo txandarako sailkatuko lirateke. Hau zortzirenetatik aurrera gertatuko balitz, txandaren iraupena ezarritako denboraren erdira murritzuko litzateke eta bi palistak hurrengo txandara joango lirateke. Bere txandara palista bakarra aurkeztuko balitz, Epaile Buruak txanda amaitutzat emango luke, uretan sartu beharrik izan gabe eta palista hurrengo txandarako sailkatuko litzateke.

Txapelketako serieen iraupena hemeretzi minutukoa izango da sailkapen txandetan eta bost minuto gehiagokoa finaletan (egun bakoitzeko baldintzen arabera, txandaren epea aldatu ahal izango da), soilik talde buruekin ospatutako aurretiko bileraren ostean.

Antolatzaileek inskripziorako epemuga bat ezarri ahal izango dute, ordutegi muga bat zehaztuz (ad. Txapelketa baino ordu bete lehenago arte) edo partaideen kopuru maximo bat (adib. 64) baina bermatu behar dute partaide izan nahi duen edozeinek muga hori ezagutzen duela.

Txapelketa abian jartzen denean, partaide gehiago ez dira onartuko.

Inskripzio epea amaitzean, epaile taldeak txandak eta kanporaketa taulak antolatuko ditu.

Txanda bakoitzean 4 palista izango dira partaide, soilik 5 izan ahal dira partaide atariko serieak osatzeko eta salbuespen kasuetan. Bestalde, finalak bi palistekin ospatu ahal izango dira.

Garrantzitsua:

Txandak, rankinean oinarritutako serie Buruen sistemari jarraiki banatuko dira. Rankingik ez dagoenean, txandak zozketa bidez antolatuko dira, txapelketaren fase bakoitzerako.

Txapelketako hurrengo faseak antolatzeko urratsa izango da:

Serie bakoitzeko lehenengo sailkatuak hurrengo taulara bikoteka ezarrita joango dira eta bigarrenak halaber hurrengo fasean dagokien txandara. Txanda bakoitzeko lehenak hurrengo faseko laukiak betetzeko ezartzen joango dira, banan-bana eta jadanik lehenengoekin betetzen denean, gauza bera egiten da bigarrenekin (Ikusi 1. Eranskina).

**16. Art. Puntuazioak.**

Puntuazioa abian jarriko da lehiakidea olatua zeharkatzen hasten denean eta amaitu egindo da olatutik irteten denean edota olatua erabat desagertzen denean, aparra barne. Konsultatu Fitxen Eranskina.

Puntuazio guztia olatuen arabera kontabilizatuko da.

Palista bakoitzak gehienez txanda bakoitzeko hamar olatu hartu ahal izango ditu, hemeretzi minutuko epemugarekin kanporaketetan eta sailkapenetan eta bost minuto gehiagorekin kontatuz finaletan (itsasoaren baldintzak eta txapelketaren ibilbidea kontuan hartuta, aldaketak egin ahal izango dira, taldeko buruen aurretiko bilera edo gehiengoaren bozketa direla medio). Olatuaren puntuazioa, olatu bakoitzean, hiru epaileen puntuazioaren bataz bestekoa izango da. Amaierako emaitza, txanda bakoitzeko, bi olatu onenen puntuazioaren batura izango da. Berdinketaren kasuan, hirugarren olatutik aurrera kontatuko da eta berdinketa mantentzen denean, laugarrenarekin jarraituko da edo hurrengoekin, berdinketa urratzea lortu arte. Finalak denbora gehiagorekin eta olatu kopuru handiagoarekin ospatu ahal izango dira, txapelketa abian jarri baino lehenagoko bileran erabakitzten dena kontuan hartuta.

Sailkapenean erabiltzeko irizpideak eta iradokizunak

a) Kalifikatu aurretik.

Ziurtatu, epaileek txapelketaren aurretiko bileran parte hartuko dutela, erabiliko diren irizpideak eta arauak ezartzeko. Epailea aldzika epaileen palkoan ezarri beharko da. Alegia, bere lehenengo txandaren aurretiko txanda batean. Horrela, epaileak ingurunearen baldintzak egiaztu ahal izateaz gainera, epailerentzat etortzen ez den kasuan eskuragarri jarriko da. Egoera guztiarako prestatu beharko da eta beharrezkoa izango balitz sueterrak, toaila, galtzak eta euritako zira ekarri beharko lituzke.

Epaileek arauak ezagutu behar dituzte, edozein egoeraren aurrean horiek aplikatu ahal izateko. Aztertu adi, jarrian aipatzen diren irizpideak.

b) Surf-aren kalifikazioan erabiltzeko irizpideak

Kayaksurfer-ak MANIOBRA ERRADIKAL KONTROLATUAK burutu behar ditu, olatuaren sektore kritikoenetan, ABIADURA, INDAR eta ARINTASUNEZ.

Irabazletzat joko da, OLATURIK HAUNDIENEAN EDO ONENEAN maniobrak burutu dituen kayaksurfer-a.

**A. MANIOBRA ERRADIKAL KONTROLATUAK**

Epaileek, olatuan, kayak-aren norabide aldaketak ikustea espero dute. Minobra hauek barne hartzen dituzte, Botton turns, reentries, cut backs, floaters, aereos, tubos, late take offs, bombeos, sanps.

Maniobra erradikalak, KONTROL eta egikaratzea determinazio gradu altu batez burutuak izan direnean, puntuazio eskalaren gunerik altuenean kokatu beharko dira. Gainontzeko irizpide (arintasun, indarra eta abiadura) faktoreen bateratzearen bitartez burutzen direnean eta olatuaren gune kritikoan, epaileek behar bezala saritu behar dute.

Zehazki, epaileek maniobra erradikalenak bilatzen dituzte, TOP TO BOTTOM-ekin (ezpain, olatuan oinarrituz, kayak-aren ertzak erabiliz) ezpain edo olatuaren oinarrian egindako surf-a baino (soilik kayakaren ertz bat erabiliz).

Slash, dezelerazio maniobra ikusgarri eta ona da, baina ez da ertzez ertzeko maniobra eta horren arabera izango da puntuatua.

Birek arinak eta ez flicks (mugimendu azkarrak) izan behar dute, puntuazio altuentzat.

Kayaksurfer-ak maniobra amaitu behar du, puntuatua izan dedin. Ez da puntuatua izango kontrola galtzen badu edo ez bada gai, olatuan jarraitzeko. Epaileak argi izan behar du, azken maniobrak ez duela puntuatzen, aurrekoek berriz bai.

#### B. SEKZIO KRITIKOAGOA

Irizpidearen zati honek, maniobra bakoitza, olatuaren zein gunetan burutu behar den deskribatzen du, ahalik eta puntuazio gorenena lortzeko. Olatuaren gunerik kritikoena “pocket”-a da, olatuaren gailurragandik gertuen dagoen horma. Puntuazio altuenak, kayaksurfer-a, “pocket” puntuau gertu mantentzen denean ematen dira.

Burutze gradua (KONTROL HANDIAREN BEHARRA) eta puntu horretatik gertu burutzearen arriskua dira, puntuazio altuena jasotzearen arrazoi. Zaitasun maila eta arriskua behar bezala saritu behar dira.

#### C. OLATUAREN TAMAINA ETA KALITATEA

Olatuaren aukeraketa, lehiakide batentzako faktorerik garrantzitsuena da. Aukeraturiko olatuek, burutzea egongo diren maniobrak zehaztuko dituzte.

Gaur egun, olatuaren tamainean ez da enfasi handiegirik jartzen, olatu txiki eta ertainetan, olatu haundienak ez dutelako zertan onenak izan behar.

Bestalde, olatu haundiko txapelketa batean berriz, tamaina izango da irizpiderik garrantzitsuena. Olatu haundiaren hartzek prest dagoen lehiakideak, konpromezu haundiagoa adieazten du. Lehiakide batek ez du automatikoki altu puntuatuko olatuaren tamaina edo kalitateagatik. Irizpideen lehenengo atala betar du eta olatuaren aukeraketak, puntuazioaren gehiengora iristeko.

#### D. INDARRA, ABIADURA ETA ARINTASUNA:

ESTILO hitzak KONTROL hitzarekin du zerikusia, hau da, lehiakide batek bere maniobra erradikalak kontrolarekin burutzen baditu, BERE ESTILOAK funtzionatzen du.

INDARRA ETA ABIADURA olatuaren gune kritikoan burutuz gero, errezagoa izango da ikusten.

ARINTASUNA, kayaksurfer-aren birak kateatzeko eta POTENTZIA eta ABIADURA eskuratzeko funtzionalak direnaren gaitasunarekin dago erlazionaturik.

ARIN doan lehiakidea, olatuak eskatzen diona irakurri eta surfeaturiko guneetan maniobra egokienak burutzen dituena da.

---

## E. PUNTUAZIOA

Puntuazio sistema 0tik 10era banatzen da, honela:

- 1 eta 2 artean.. Txarra
- 2.1 eta 4 artean.. Pobre
- 4.1 eta 6 artean ....Ertaina
- 6.1 eta 8 artean..... Ona
- 8.1 eta 10 artean .....Bikaina

Lehenengo olatuetan desberdintasunak ezartzeko, puntu osoak eta erdiak erabili ahal den neurrian txandan. Beharrezko denean, hamarrenekoetara jo.

Dauden baldintzen arabera, txanda osoan zehar, 0tik 10era bitarteko eskala erabiltzen ahalegindu.

Olatu onetan, ALTO kalifikatu eta olatu txaretan BAXU. Txanda aurrera doan heinean, saihestu altuago edo baxuago puntuatzea. ESKALA MANTENDU. Azken olatuaren puntuazioa txandan puntuaturiko azken olatuarekin bat etorri behar du.

Epaile batek olatu bat galtzen badu, M jarri behar du dagokion laukian eta Epaile Nagusiari jakinarazi, zuzendari tekniko edo epaile Nagusiaren orrian ager dadin. M-a, gainontzeko epaileen puntuazioaren batez bestekoagatik ordezkatuko da.

Epaileek ez dituzte puntuazioak trukatu behar, ez eta beste epaileen puntuazioetan eragin. Akats bat burutu bada, epaile nagusiak zuzenketa burutu dezala egin behar du.

Ikusleen edo lagunen eta bestelako kanpoko eragileen aldetik baldintzatua izatea saihestuz. Bere irizpide propioak konfiantza izanik mantentzea bilatuz. Txandan zehar beste epaile batzuei bere iritzia adierazten ez diola zainduz.

Proban zehar, olatu zenbakien kontrolak burutu eten gabe, bat bera ere galdu ez dela ziurtatzeko.

Beste epaileei ez eman zure iritzia, epaile nagusiarekin hitz egin.

---

## F. KALIFIKAZIO METODOA.

Garrantzitsua da, txandako lehenengo OLATU ONA behar bezala kalifikatzea. Honek, mangaren gainontzeko olatuen puntuaziorako eskala ezarriko du. Baldintza horietarako dagokion eskalaren notarekin, txarra, pobre, ertain, ona edo bikaina erabiliz ezarri falifikasiyoza.

Saiatu, puntuaturiko 1.go eta 2. Olatuen artean, gutxienez puntu bateko aldea uzten. Horrela, hurrengo olatua, lehenengo bien artean egongo da. Marjin ona izango delarik.

Txandako puntuazioen arteko konparaketa inperatiboa da. Olatuak, puntuazio potentzialaren ikuspuntutik ikusten ahalegindu.

## Kayak Surfeko Araudia

Lehiakidea olatua surfeatzan, maniobratzen ari den bitartean, zure buruan, batuko diren puntuak ezartzen dituzu. Horrela, olatua amaitzean, edo erorketa bat egonez gero, automatikoki izango dezu puntuazioa. Ez dira puntuak kentzen lehiakidearen erorketagatik.

Epaile bakoitzak % 100eko ahalegina egingo du. Oinarrizko da kontzentrazio maximoa erabiltzea bermatzeko lehentasun pertsonalak baztertuta daudela eta panelerako bere ekarpena esanguratsua dela.

## G. BALDINTZA TXARRETAN KALIFIKAZIOA.

Jardunaldi asko baldintza marginaletan jokatzen dira. Toki guztiekin, surfeatzeko kalitate txarreko baldintzak jasan ditzakete, horregatik, epaileak baldintza horietara moldatu behar du.

Baldintza horietan, adi egon behar dute, lehiakideek olatuaren indar eskasa erabiltzen dutela eta aparteko maniobrak eta ahalik eta arintasun gehienarekin konbinatzen dituztela, inultso, paleatu edo bote beharrik gabe, sekzioa ezberdinak kateatzeko.

Behin lehiakidea aparrera iritsita (ez bada, maniobraren zati bat) olatua amaitutzat ematen da, ez bada, olatuaren sorbalda errekuperatzan.

## H. MANGA ZAILEN KALIFIKAZIOA.

Epaileak, manga zailak erronka bezala hartu behar ditu. Honek esan nahi du, kalifikatzerakoan, metodikokik, oso kritikoa behar duela izan, detaileak aztertu, buruan olatu guztia izanik.

Honako faktore hauek izan behar dira kontutan:

- Non burutzen da lehenengo maniobra.
- Nola burutzen da (kalitatea)
- Nola kateatzen dira maniobrak (arintasuna)
- Olatuak dituen gune ezberditan lehiakideak maniobrak burutu edo pasa.
- OUTSIDE (urautsi urrunena) konparatu INSIDEen (ertzetik gertuen dagoen urautsia) buruturiko maniobrekin.
- Take off puntu eta lehiakidearen sakontasuna konparatu burutzerako garaian.
- Lehiakideak olatuaren indarra nola erabiltzen duen baloratu (gutxi paleatuz)
- Sekzioak gainditzeko trebetasuna eta bakoitzean buruturiko maniobren funtzionaltasuna
- Maniobra burutu du eta KONTROLArekin egin du.

## Kayak Surfeko Araudia

- Maniobraren BERTIKALTASUNA ETA burutu aurreko Botton turn-aren SAKONTASUNA
- Zer burutzen du lehiakideak erori aurretik?
- Lehenengo eta azken olatuen arteko konparaketa oso garrantzitsua da.

## 17. Art.- Interferentziak.

### Lehentasun eta interferentzia araudia

#### OINARRIZKO ARAUA (olatuaren lehentasuna)

- Olatuaren aurreko posizioan ezarritako palista (olatuaren aparretik hurbilago). BALDINTZARIK GABEKO LEHENTASUNA IZANGO DU OLATUAREN IRAUPEN OSOAN. Interferentzia markatu egingo da Epaile gehienek erabakitzetan badute beste lehiakide bat olatuko lehentasunaren esleipena zegokion norbaiti KALTETZEN ari zaiola.
- Lehentasuna, jardunaldia ospatzen den baldintzen araberakoa izango da. Epailearen erantzukizuna da ezartzea zein lehiakidek duen barruragoko posizioa edo olatu batek potentzial gehiago duenean ezkerraldean edo eskuinaldean. Take off-aren hasierako puntuari ez bada posible, norabide bat beste batekiko gailentzen dela zehaztea, behin betiko bira, aukeraturiko norabiean burutze duen lehiakidearentzako izango da.

Beti nagusitzen da araua zeinen arabera olatuan labaintzen den lehena eta muturretik (muturra izanik olatuaren atalik altuena zeinetatik olatua urratzen hasiko den) gertuen aurkitzen dena lehenetsiko den, beste lehiakide batekin alderatzean lehenetsia izanik.

"Interferentzia" bezala ulertuko da lehiakide batek bere borondatez edo borondatetik haratago eginiko edozein ekintza, beste lehiakide baten 'jarduera' eragotzi, oztopatu edo zaildu egiten duena. Interferentziatzat hartu ahal izango litzateke, besteren artean:

- Arriskutsua izan litekeen edozein praktika.
  - Txapelketa eremuan zehar igotzen joatea, beste lehiakideak ihesteko ekintza bat egitera behartuz.
  - Olatua "lapurtzea", jadanik posizio onean ezarrita prest dagoen lehiakide baten aurretik arraunketa eginez.
  - "Sigi-saga egitea": Palista bat, olatu bat aparrean hartzean, ezin izango da jadanik beste lehiakide batek okupatutako paretarantz joan ahal izan.
- Beste lehiakide batekin itsatsita ezarri edo muturrean hura hurbiletik jarraitu, lehenak olatua hartu ezin izateko eragozpenak bilatz.

Lehiakide bat olatu bat nabigatzen ari denean eta aldi berean beste bat igoera egiten ari denean, azkenak ihesteko jarduera bat ekin beharko dio (beharrezkoa izango balitz iraulketa eginez).

Kolisioa berehala gertatzera doanean, palista irauli egin beharko da.

## Kayak Surfeko Araudia

Olatuaren aurreko posizioan ezarritako palista (olatuaren aparretik hurbilago). BALDINTZARIK GABEKO LEHENTASUNA IZANGO DU OLATUAREN IRAUPEN OSOAN. Interferentzia markatu egingo da Epaile gehienek erabakitzetan badute beste lehiakide bat olatuko lehentasunaren esleipena zegokion norbaiti kaltetzen ari zaiola.

Arau honen giltza da PUNTUAZIOAREN POTENTZIALA EZ KALTETZEA.

## KONTUAN HARTU BEHARREKO FAKTOREAK

- 1)- Zein palistari dagokio olatuko lehentasuna.
- 2). Interferentzia gertatu den edo ez. Olatuan lehentasuna duen palista kaltetua izaten ari da edo ez.
- 3) Zein arau erabili behar du interferentzia justifikatzeko. Adibidez, Olatuan jauzi egitea, Snacking edo arraunketaren interferentzia.

Interferentzia bat zehazteko, egoera gertatzen denean, epaileek lehenengo zein kayaksurfer-ek duen lehentasuna ezartzen dute.

Orduan, epaileek zehazten dute, ea lehentasuna duen kayaksurfer-a kaltetua izan den bere puntuazio maximo potentziala eskuratzetik.

## INTERFERENTZIA ARAUAK

- POINT BREAK

Edozein olatutan, soilik norabide posible bat bakarrik dagoenean, BARRUKO KOKALEKUAN dagoen lehiakideak LEHENTASUNA IZANGO DU IRAUPEN GUZTIA.

- TONTORRA (Single peak)

Ezkerraldean eta eskuinaldean kalitate bereko bi tontor daudenean, Take off hasiera gunean, “tontorraren” gunerik barnekoenean dagoen lehiakideak izango du lehentasuna, berak aukeraturiko norabiderako bira eginez gero. Bigarren surfer-ak kontrako norabidean joanez gero, olatua hartzea izango du.

- TONTOR UGARIAK (Beach Break)

Tontor ugariko eta aleatorioetako kasuetan, olatuaren jabetza, olatu bakoitzaren izaeraren araberakoa izango da.

1. Tontor separatuak, puntualkin elkartzen dira.

- 1.1 Lehenengo irristatzen den lehiakideak lehentasuna du eta bigarrenak atera beharra du.

2. Biek aldi berean hartzen badute olatua.

- 2.1. biak olatutik ateratzen badira, ez da zigorrik egongo.

## Kayak Surfeko Araudia

2.2.bidean gurutzatu eta talka egiten badute, edo batak beteari kaltetzen baldin badio, epaileek, talka gunean erasotzailea izan dena zigortuko dute.

2.3. bi lehiakideetatik, bat berak ere ez badu amore ematen, olatutik atereaz, eta bien ardura bada konfrontazioa, interferentzia bikoitza markatuko da.

### Interferentzia motak edo lehentasunak:

A palista muturretik hurbilago dago eta lehentasuna du.



B palistak A palistari bidea eman behar dio.

B palistak olatua hartzen duenean interferentzia bat egiten ari da A palistari eta penalizatua izan ahal da.

A palistak lehentasuna du.



B palistak, jadanik olatua hartu zuen A palistari bidea eman behar dio.

B palistak ez du eskubiderik izango olatua hartzeko A palista jadanik surfeatzan ari delako.



Palistak jadanik olatu bat hartu duenean, beste palista ezin izango da 'tartean sartu' eta olatua muturrarekiko sekzio hurbilago batean hartu.



A palistak, jadanik olatua hartu duenean, B palistarekiko lehentasuna izango du.

B surfeatzan ari zen pareta urratu egin da. A palista orduan jadanik olatua hartzera abiatu ahal da.



Erabat urratutako olatuaren sekzio bat nabigatzen ari den palista ezin izango da muturrera itzuli urratu gabe, hau jadanik erabilia izaten ari bada.

A palista muturrean aurkituko ez balitz, B palista igo egin ahal izango litzateke.

A palistak, aparraren aurretik muturrerantz urratu gabe surfeatzen ari denak, lehentasuna izango du. B palistak ez du olatua hartu behar.



B palistak, olatua sekzio urratu batean hartzeko ahaleginean, ez du eskubiderik izango A palistak okupatutako mutur/paretarekiko.



A palistak lehentasuna izango du eskuineko paretan, B palistak ezkerrekoan lehentasuna izaten duen bitartean.



Surfeatzeko moduko pareta bat dagoenean eskuinean eta ezkerrean, B palistak ez du eskubiderik izango zeharkatzeko gandorraren azpitik A palistak jadanik okupatutako pareta eta alderantziz.



